

Espediente Expediente	Matrikula Matrícula	Jabea/Gidaria Titular/Conductor	Lekua haustea Lugar infracción	Data-Ordua Fecha-Hora	Hauستا Infracción	.	..	Zenbatekoa (€) Importe (€)
2014/001418	-001178-BLH	MATA MARTIN, ALEJANDRO	CL/KL GENERAL CASTAÑOS, 1	31/05/2014 4:10	94 2 D RG	0	0	200,00
2014/001421	BI-009435-CC	MAIRONGO RENTERIA, HEDER	CL/KL RAMON Y CAJAL, 0	31/05/2014 7:58	91 2 M RG	0	0	200,00
2014/001424	-003900-HHS	BAYO MENDIETA, JOSE IGNACIO	AW/ET CARLOS VII, 21	31/05/2014 12:10	91 2 I RG	0	0	200,00
2014/001486	-001509-FVY	AGUILAR ESTEBANEZ, LUIS	CL/KL MUGAKOA, 0	01/06/2014 13:52	91 2 L RG	0	0	200,00
2014/001487	-002133-GZC	FDEZ DE VILLAVARDE SOLOZABAL, JAVIER	CL/KL MUGAKOA, 0	01/06/2014 13:43	91 2 E RG	0	0	200,00
2014/001490	-007899-BZW	BOSS SERVICIOS AUXILIARES, S.L.	AW/ET CARLOS VII, 11	02/06/2014 12:02	171 B RG	0	0	80,00
2014/001491	-005386-DGZ	BENITO BENITO, JAVIER	AW/ET BALLONTI, 0	02/06/2014 12:37	94 2 D RG	0	0	200,00
2014/001495	M-003906-VL	GONZALEZ PELAEZ, JESUS	CL/KL AZETA, 5	02/06/2014 12:25	94 2 D RG	0	0	200,00
2014/001498	-002163-BVD	ARES CORDON, HAIZEA	AW/ET LIBERTADOR SIMON BOLIVAR, 5	03/06/2014 16:30	94 2 C RG	0	0	80,00
2014/001500	-009661-FTC	IPARRAGUIRRE GARCIA, JOSE ANTONIO	AW/ET REPELEGA, 7	03/06/2014 18:00	91 2 L RG	0	0	200,00

LTSV: Trafiko eta Bide Segurtasun Legea (RD 339/1990). / Ley de Tráfico y Seguridad Vial (RD 339/1990).

RG: Zirkulazio Araudi Orokorra (RD 13/1992). / Reglamento General de Circulación (RD 13/1992).

OOMM: Trafikoari buruzko Udal Ordenantza (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 1993ko otsailaren 17an). / Ordenanza Municipal de Tráfico («Boletín Oficial de Bizkaia», de 17 de febrero de 1993).

* TBSko II. eranskina haustea, 17/2005 Legeak ekarria. / Infracción Anexo II de la L.S.V. introducida por la ley 17/2005.

** Kendu beharreko puntuak. II. eranskina. / Puntos a detrá, Anexo I.

(II-4910)

Lekeitioko Udala

Arautegia larrialdiko etxebizitzaren erabilerrari eta horien prezio publikoari buruzkoa.

Lekeitioko Udalaren larrialdiko etxebizitzaren erabilerrari eta horien prezio publikoari buruzko Ordenantzaren artikuluko batzuk aldatzeko iragarkia jendarean jarri ondoren ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu horretarako emandako epean. Ondorioz, aldaketak behin-betiko onartuta gelditu dira Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen duen Legearen 49 c) artikuluko eta apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketa berriak ezartzen dutenen arabera. Hau horrela, Ordenantza bere osotasunean argitaratzen da, aldaketak barne eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita indarrean jarriko da.

ARAUTEGIA LARRIALDIKO ETXEBIZITZEN ERABILERRARI ETA HORIEN PREZIO PUBLIKOARI BURUZKOA

1. artikulua.—Helburua

Lekeitioko Udala etxebizitza batzuk ditu udalerrian, larrialdi-egoeran aurkitzen diren Lekeitio inguruko familien premiak betetzen erabiliko direnak.

Araudi honek larrialdi-egoerak zehaztea du helburu; baita onuradunak nortzuk diren zehaztea ere.

2. artikulua.—Xedea

Larrialdi-egoeratzat hauxe ulertzen da: Istripuak, hondamen naturalak edo baldintza sanitario okerrekin eragindako kalteen ondorioz norberaren etxebizitza ezin erabili ahal izatea.

Onuradun izateko, bestalde, honelako egoera sozio-familiarra eman behar da: Bai familiarren inguruan zein merkatu pribatuan beste habitatik ez izatea aldi baterako, aseguru-estaldurarik, behar beste maila ekonomikorik, etab., ez izateagatik.

3. artikulua.—Azalpenak

3.1. Istripua. Istriputzat hauek hartzen dira: Suteak etxebizitzaren eragindako kalteak, urak gainezka egitea ur-instalazioetan izandako matxuragatik, etxebizitza erortzea edo erortzeko arrisku larriaren egoera, etab., beti ere sortarazitako kalteak etxebizitza uztera derrigortzen badute. Kalteak, udal tekniko batek ziurtatuko ditu.

3.2. Hondamen naturalak. Hondamen naturalak. Hondamen naturaltzat hauek hartzen dira: Klimatologiaren eraginez uholdeak edo suteak izatea etxebizitzan, beti ere etxebizitza uztera derrigortzen badute. Kalteak, udal tekniko batek ziurtatuko ditu.

Ayuntamiento de Lekeitio

Reglamento regulador del uso de vivienda de emergencia del Ayuntamiento de Lekeitio y de los precios públicos de la misma.

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de Modificación de varios artículos de la ordenanza municipal que regula el uso de la vivienda de emergencia del Ayuntamiento de Lekeitio y de los precios públicos de la misma, dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 c) de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril. Se procede, por tanto, a la publicación íntegra de la Ordenanza con las modificaciones aprobadas, significando que entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

REGLAMENTO REGULADOR DEL USO DE VIVIENDA DE EMERGENCIA DEL AYUNTAMIENTO DE LEKEITIO Y DE LOS PRECIOS PÚBLICOS DE LA MISMA

Artículo 1.—Finalidad

El Ayuntamiento de Lekeitio dispone de viviendas sitas en Lekeitio, que se destinarán a atender las necesidades de aquellas familias del ámbito de Lekeitio que se encuentren en una situación de emergencia.

Con objeto de determinar las situaciones de emergencia, y regular los beneficiarios, se aprueba el presente reglamento.

Artículo 2.—Objeto

Se entiende por situación de emergencia aquella producida por accidente, catástrofe natural o condiciones sanitarias adversas, con resultado de inhabilitación de la vivienda propia.

Asimismo, para ser beneficiario/a deberán concurrir otras situaciones socio-familiares, como la de no poder disponer de otro hábitat de manera transitoria, bien en el entorno familiar, bien en el mercado privado, por cobertura de seguros, por nivel económico, etc.

Artículo 3.—Definiciones

3.1. Accidente. Se incluye en los supuestos de accidente los daños en la vivienda producidos por incendio, inundación por avería en las instalaciones, derrumbe o riesgo fehaciente de derrumbe, etc., siempre y cuando la gravedad de los supuestos obligue al desalojo de la vivienda. Los desperfectos serán valorados por un técnico municipal.

3.2. Catástrofe natural. Se incluye en los supuestos de catástrofe natural las inundaciones o incendio de la vivienda provocados por la climatología reinante, que conlleve el desalojo obligado de la vivienda. Los desperfectos serán valorados por un técnico municipal.

3.3. Baldintza sanitarioak. Baldintza sanitariotzat ulertzen da etxebizitza ezin denean erabili egoera desegokian egoteagatik. Izurriteak, produktu toxikoek etxebizitzan eragindako kalteak eta, oro har, baldintza sanitario urriak dituzten etxebizitzak izan daitezke, besteak beste, horrelako kasuak. Edozein dela kasua ere, zerbitzu sanitarioek justifikatu beharko dute etxebizitza derrigorrez utzi behar dela.

3.4. Bestelakoak. Gorago zerrendatutako kasuetako batean egon ez arren, baina norberaren etxebizitza aldi baterako uzteko premia larria eta egiaztatua dagoenean, eratuko den organo erabakigarriak emango du larrialdiko etxebizitza okupatzeko baimena.

4. artikulua.—Larrialdi egoeratik kanpo geratzen diren kasuak

Ez dira larrialdi-egoeran sartuko etxebizitza utzi behar dutela aurretiaz dakiten kasuak. Ondoren zerrendatuko diren kasuak dira bereziki egoera horretakoak:

4.1. Eraikinaren hondamen-espeditzea. Eraikinaren hondamen-espeditzea ireki eta amaitzen denean jakina da alde aurretik norberaren etxebizitza utzi egin behar dela.

4.2. Maizterra botatzeko espeditzea. Aurreko kasuan bezala, denboraz prozesu luze bat izan duten kasuak dira; eta beraz, alde aurretik antzematekoak.

4.3. Norberaren etxebizitza ez izatea. Horrelako kasuak ez dira larrialdikoak.

4.4. Zailtasun ekonomikoak. Horrelako premiak betetzeko badaude bestelako baliabide publikoak.

5. artikulua.—Erabiltzaile izaera lortzea

Araudi honen bigarren artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten unitate familiarrek izango dute erabiltzaile izaera. Horiez gainera, honelako baldintzak ere bete behar dituzte:

5.1. Lekeition errolaturik egotea. Etxebizitza erabiltzeko eskaria egin baino urtebete bat (1) lehenago gutxienean.

5.2. Unitate familiar independentea izatea. Eskaria egin baino urtebete aurretiaz gutxienean, baldin eta 198/1999 Dekretuak (apirilaren 20koa, Oinarrizko Errenta arautzen duena) 3. artikuluan eta Dekretu horren osteko aldaketek hartzen dituzten kasuetan sartuta ez badaude.

6. artikulua.—Etxebizitza okupatzeko baldintzak

6.1. Erabiltzaile izaera. Erabiltzaile izaera lortzeko baldintzak egiaztatu eta ziurtatzen direnean hasiko da etxebizitza erabiltzeko baimena tramitatzen.

6.2. Etxebizitzaren aldi baterako premia. Lekeitioko Udalak baimena emango die etxebizitza aldi batean erabiltzeko premia dutela egiaztatzen duten unitate familiarrei. Horrela, bada, utzitako etxebizitza hustu egingo dute, aurretik ezarritako epea betetzen denean.

6.3. Etxebizitza uzteko epea. Etxebizitza uzteko epea. Etxebizitza gehienez hiru hilabeterako utziko da, bertara sartzen den lehen egunetik kontatzen hasita. Hilabeteko luzapen bakar bat eman go da, ohiko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Luzapena eskatzeko arrazoiak frogatu egin beharko dira.

Behar bezala egiaztatuta aparteko arrazoiengatik, Balorazio eta Sarrera Batzordeak, salbuespen bezala, etxebizitzaren utziera hamabi hilabetera arte luza daiteke.

6.4. Familiaren sarrera. Gizarte Zerbitzuek egindako txostenaren ondoren sartuko da unitate familiarra etxebizitzan. Txostenak familiaren egoera sozio-familiarra eta ekonomikoa islatuko du, eskaria egiteko aurkeztu diren arrazoiak eta etxebizitza okupatuko duten ustezko denbora.

6.5. Etxebizitza uzteko dokumentua. Unitate familiar onuraduna etxebizitzan sartzean, alde biek (udalak eta familiak) onartutako dokumentua izenpetuko dute, bertan jartzen diren baldintzak, baita iraungo duten denborari buruzkoa ere, onartzen

condiciones sanitarias. Se incluye en los supuestos de condiciones sanitarias aquellas circunstancias de la vivienda que provoquen su inhabilitación, como son las plagas, la afectación de la vivienda por productos tóxicos y las condiciones de precariedad sanitaria en general, debidamente justificada por los servicios sanitarios y que supongan el obligado desalojo de la vivienda.

3.4. Otras circunstancias. En aquellos casos que no concurren las circunstancias de inhabilitación anteriormente expuestas, pero que se produzca la necesidad urgente y constatable de abandono transitorio de la vivienda propia, el órgano decisorio que se constituya para determinar la ocupación, podrá autorizar el uso de la vivienda.

Artículo 4.—Supuestos de exclusión

Quedan taxativamente excluidas de la condición de emergencia, aquellas situaciones en las que se haya podido anticipar la obligatoriedad de desalojo, y, de una forma especial, las que a continuación se detallan:

4.1. Desalojos de la vivienda propia como consecuencia de haberse iniciado y concluido un expediente de ruina del edificio en el cual se ubique la vivienda, toda vez que se considera que se da la condición de anticipación.

4.2. Desalojo de la vivienda habitual por razones de desahucio, que como en caso anterior, se trata de situaciones de desenlace de procesos prolongados en el tiempo, y por tanto, de posible anticipación.

4.3. Por no disponer de vivienda propia y tratarse de situaciones que no suponen emergencia.

4.4. Por concurrir dificultades económicas, ya que existen recursos públicos específicos de atención a estas necesidades.

Artículo 5.—Adquisición de la condición de usuario/a

Adquiere la condición de unidad familiar usuaria, aquellas que cumplan con los requisitos anteriormente expuestos, y además:

5.1. Permanezcan empadronados en el ámbito de Lekeitio con al menos 1 año de anterioridad a la solicitud de uso de la vivienda.

5.2. Constituyan hogar independiente con una anterioridad superior a 1 año, salvo los supuestos recogidos en el artículo 3 del Decreto 198/1999 de 20 de abril, por el que se regula la Renta Básica y posteriores modificaciones.

Artículo 6.—Condiciones de la cesión de uso

6.1. Se procederá a tramitar la concesión de uso de la vivienda cuando se acrediten y verifiquen los requisitos para obtención de la condición de usuario/a.

6.2. El Ayuntamiento de Lekeitio cederá el uso de la vivienda a aquellas unidades familiares que puedan acreditar la situación transitoria del uso de la vivienda, y por tanto, que acrediten su voluntad innegable de desalojar la vivienda cedida cuando se cumplan los plazos previstos.

6.3. El período máximo de cesión de la vivienda será de tres meses a contar desde el primer día de pernocta en el mismo, autorizándose una única prórroga por un período de un mes a contar desde la fecha de finalización del período normal, y siempre y cuando se pueda demostrar fehacientemente las causas que motivan la solicitud de la prórroga.

Por causas extraordinarias debidamente acreditadas, y de manera excepcional, la Comisión de Valoración e Ingreso podrá prorrogar la cesión de la vivienda hasta un período máximo de doce meses.

6.4. El ingreso de la unidad familiar solicitante en la vivienda se efectuará previo informe de los servicios sociales, en el cual se recogerá completa información de la situación socio-familiar (familia extensa) y económica de la familia, las causas que han motivado la solicitud y el período transitorio de ocupación estimado.

6.5. La unidad familiar beneficiaria firmará a la entrada en la vivienda un documento entre las partes (Ayuntamiento y familia), con aceptación expresa de las condiciones, incluido el tiempo de estancia en la misma. Así mismo, se entregará a la familia

dituztela esaten duena. Horrez gainera, etxebizitzak dituen ondaren inbentario osoa emango zaio famili onuradunari.

6.6. Etxebizitzaren karga ekonomikoak. Jabetza publikoko etxebizitzan irauten duten denboran, unitate familiar erabiltzailearen kontu izango dira etxebizitzaren mantentze- eta hornidura-gastu guztiak. Jarraian aipatuko diren kontuak ordainduko dituzte.

6.7. Karga ekonomikoak. Honako hauek dira etxebizitzaren karga ekonomiko orokorrak:

1. Lekeitioko Udaleko Diruzaintzan 300 euroko behin betiko fidantza eratzea, etxebizitzaren giltzak ematen direnean. Fidantza erabiltzaileari itzuliko zaio, etxebizitza uzten duenean, eta Lekeitioko Udaleko zerbitzuek etxebizitza eta bertako tresna guztiak egoera onean daukela frogatu ostean. Etxebizitzak edota bertako tresnek kalteak dituztela ikusten bada, unitate familiar onuradunak hilabeteko epea izango du haiek konpontzeko beren baliabideen bidez. Bestela fidantza erabiliko da oso-osorik.
2. Hilero 161 euroko diru kopurua ordaintzea, edo dagokion zatia, baldin eta okupatutako denbora hilabetekoa baino txikiagoa bada. Diru horren bidez etxebizitzaren mantentze eta hornidura gastu guztiak (ura, elektrizitatea, berogailua, e.a.....) ordainduko dira. Kopuru hori urtero eguneratuko da, urteko KPIren (Konsumoko Prezioaren Indizea) gorakada aplikatuz.

Salbuespenez eta arrazoituta zioak aurkeztu ondoren, Balorazio Batzordeak fidantza eratzetik edota hilero ordaintzeko egiteak libre utz ditzake aipaturiko karga ekonomikoak ordaintzeko baliabide ekonomikorik (behar bezala egiaztatuta) ez duten onuradunak.

6.8. Etxebizitzaren hornidura. Jabetza publikoko etxebizitza behar bezala hornituta egongo da, eta edozein unetan erabiltzeko moduan. Horregatik, bada, familia onuradunak norberaren gauza pertsonalak bakarrik sartuko ditu. Ez da, inola ere, familia onuradunaren etxeko tresnak sartzen utziko.

6.9. Debekua. Erabat galarazita dago unitate familiarrekoa ez den beste pertsona bat sartzea aipaturiko etxebizitzan. Hori dela eta, udaleko biztanleen erroldan agertzen direnak dira unitate familiarrekoak.

6.10. Konpartitzea. Larrialdiko egoera bialdi berean ematen badira, eta unitate familiar bietako partaideen kopuruak ahalbideratzen badu etxebizitza elkarrekin konpartitzea, unitate familiar biek onartu egingo dute konpartitzearena, eta okupazio-gastuak bien artean ordainduko dira.

7. artikulua.—Balorazio eta sarrera batzordea

Araudi honek ezartzen dituen baldintzak betetzen direla bermatzeko eta operatibo izateko, organo erabakigarria eratzen da, Balorazio eta Sarrera Batzordea izena hartuko duena, honako pertsonen osatua:

- Lekeitioko Udaleko alkatea edo berak ordezkotza ematen diona.
- Gizarte Ongizate Batzordeko burua edo berak ordezkotza ematen diona.
- Gizarte langilea.

Etxebizitza berehala okupatu behar bada, aparteko larrialdi egoeraren bat eman delako, eta Balorazio eta Sarrera Batzordea ezin bada aurretiaz batzartu, Batzordeko partaideren baten esku utziko da tramitazioa berehala hasteko erabakia. Erabakia behin behineroa izango da, harik eta aipaturiko Batzordea batzartu eta behin betiko erabakia hartu arte.

8. artikulua.—Jarraipena

Gizarte Zerbitzuei dagokie etxebizitza darabilten unitate familiarren egoeraz jarraipena egitea; eta interesgarritzat jotzen

beneficiaria un inventario completo de los bienes de los que dispone la vivienda.

6.6. Durante el tiempo de estancia en la vivienda de titularidad pública, correrán por cuenta de la unidad familiar usuaria, todos los gastos de mantenimiento y suministros, abonando las cantidades que a continuación se indican.

6.7. Las cargas económicas generales de la vivienda serán las siguientes:

1. Una fianza definitiva de 300 euros que serán depositadas en la Tesorería del Ayuntamiento de Lekeitio en el momento de entrega de las llaves de la vivienda. Esta fianza será reintegrada al usuario/a en el momento de abandonar la vivienda y tras ser comprobado el estado de la misma y de los enseres que contenga por parte de los servicios del Ayuntamiento de Lekeitio. Caso de detectarse daños en la vivienda o en su mantenimiento la unidad familiar beneficiaria podrá subsanarlos por sus propios medios, en el plazo de un mes o será ejecutada la fianza en su totalidad.
2. Una cantidad fija de 161 euros mensuales, o la parte proporcional cuando se ocupe por períodos de tiempo inferior al mes, para sufragar todos los gastos de mantenimiento y suministros de la vivienda (agua, electricidad, calefacción, etc.). Dicha cantidad será actualizada anualmente en base al IPC.

Excepcionalmente y de manera motivada, la Comisión de Valoración podrá eximir del depósito de fianza y/o los pagos mensuales a aquellos beneficiarios/as cuya situación económica, debidamente acreditada, no les permita hacer frente a las citadas cargas económicas.

6.8. La vivienda de titularidad pública se encontrará adecuadamente equipada en situación de ser utilizada en todo momento, por lo cual, la familia beneficiaria únicamente podrá introducir los efectos personales de cada uno/a de sus miembros, y en ningún caso se permitirá la introducción de elementos del equipamiento doméstico de la familia beneficiaria.

6.9. Queda taxativamente prohibido el alojamiento en la referida vivienda de ninguna persona ajena a la unidad familiar. Se considerarán, a tal efecto, miembros de la unidad familiar, todos/as aquellos/as que se encuentren empadronados/as como tales.

6.10. En el caso de que se produjeran dos situaciones definidas de emergencia simultáneamente, y el número de miembros de cada unidad familiar admitiera un alojamiento compartido en la vivienda, las unidades familiares afectadas aceptarán la compartibilidad de la misma, distribuyéndose entre ambas los costes de ocupación.

Artículo 7.—Comisión de valoración e ingreso

Con objeto de garantizar el cumplimiento de las condiciones expuestas en el presente reglamento, y a efectos de operativizar el mismo, se constituye un órgano decisorio compuesto por las siguientes personas; que tendrá la denominación de Comisión de valoración e ingreso:

- Alcalde del Ayuntamiento o persona en quien delegue.
- Concejales responsables de Bienestar Social o persona en quien delegue.
- La Trabajadora Social.

Cuando la ocupación de la vivienda se tenga que producir de manera inmediata debido a una situación de extrema urgencia, y no pueda constituirse la Comisión de valoración e ingreso previamente, se delegará en cualquiera de los miembros de la Comisión para que de manera inmediata proceda a realizar la tramitación, con carácter transitoria, hasta la constitución de la referida comisión.

Artículo 8.—Seguimiento

El seguimiento de la situación de la unidad familiar usuaria de la vivienda, corresponderá a los servicios sociales, que remitirán

duen informazio guztia helaraziko diote Balarazio eta Sarrera Batzordeari.

Lekeition, 2014ko uztailaren 21ean.—Alkate andrea, Maitane Larrauri Fraile.

DOKUMENTUA. ETXEBIZITZA PREKARIOAN UZTEA

Lekeitioko udaletxean, 20.....ko-ren-an, honelako jaun-andreak batu dira:

Batzarkideak:

Alde batetik, udal honen izenean eta ordezkari gisa, Lekeitioko Udaleko alkate/alkate andre-udalburua.

Bestetik,, NANaren zenb.a duena, Lekeitioko kalean bizi dena.

Alde biek dokumentu hau izenpetzeko legezko ahalmena aitortzen diote elkarri. Hori dela eta, honakoa agertzen dute:

Agerpenak:

1. Lekeitioko Udala dela udalerriko Aldamiz Etxebarria kalea 30eko 1. solairuko B letra duen etxebizitzaren jabea. Etxebizitza egozkituta dago Lekeitioko Udaleko 2007ko urriaren 4ko Osoko Bilkurak onartutako Araudiaren (larrialdiko etxebizitzaren erabilerrari buruzkoa) 5. artikuluan ezartzen dituen pertsonak hartzeko.

2. Sarrera Batzordeak aztertu duela eskatzailearen egoera; eta aintzat hartu ditu interesatuak betetzen dituen zirkunstantziak horrelako etxebizitza bat erabiltzeko, horrela jasota geratzen delarik dagokion espedientean.

3. jaunak/andreak, etxebizitza erabiltzeko onuradunak, bere egiten ditu gorago aipaturiko Araudiaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak, bai denborari dagozkionak zein ekonomiarlokoak. Halaber, onartu egiten du betebeharrak ekonomikoaren bidez ez duela errentarik ordaintzen, giza eta zerbitzu publikoaren erabilerrarako baita etxebizitza. Onuradunak, bada, ez du inolako errentari izaerarik.

Dokumentu honekin ados daudela esateko, alde biek dokumentua izenpetzen dute, hasieran aipaturiko herrian eta egunean.

Lekeitioko Udaleko Alkatea.—Onuraduna.

(II-4904)

Lemoako Udala

10 zenbakia duen Ordenantza Fiskala, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik udal ordenantza fiskala aldatzea.

Udal honek, aurtengo ekainaren 4ko Ohiko Osoko Bilkuraren Batzaraldian batuta, erabaki du hasieran onartzea «10 zenbakia duen Ordenantza Fiskala, Udal Jabari publikoaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik udal ordenantza Fiskal Arautzailea»ren aldaketa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49, 70-2.a eta 111. artikuluetan eta Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatua betez, alpatu den espedientea jendaurreko informaziorako jarri zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen egunaren hurrengotik zenbaturiko 30 eguneko epean zehar, ez delarik erreklamaziorik egin izan.

Ondorioz, onarpen horrek behin betiko izaera du, jarraian Ordenantza Fiskalaren testu osoa argitaratuz indarrean jartzeko eta bete eginaz, horrela, Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.4.a artikuluan eta Toki Araubidezko Oinarrien arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2.a artikuluan eskatua.

cuanta información sea considerada de interés a la Comisión de valoración e ingreso.

En Lekeitio, a 21 de julio de 2014.—La Alcaldesa, Maitane Larrauri Fraile.

DOCUMENTO DE CESIÓN DE VIVIENDA EN PRECARIO

En Lekeitio, a de de

Intervienen:

Por parte del Ayuntamiento de Lekeitio don/doña, con DNI.:, en nombre y representación de la misma.

De otra parte, don/doña, vecino/a de, con domicilio en la calle de y con DNI:

Ambas partes están legalmente capacitadas para la celebración de este acto y, al efecto,

Exponen:

1. Que el Ayuntamiento de Lekeitio es propietaria del inmueble sito en la calle....., piso, letra....., de esta villa, habilitado para la acogida de las personas indicadas en el artículo 5 del Reglamento del uso de la vivienda de emergencia aprobado en Pleno, en sesión celebrada el 4 de octubre de 2007.

2. Que la Comisión de Ingreso ha valorado y apreciado la necesidad de acogerle en la vivienda, haciendo constar en su expediente, abierto con ocasión de la solicitud, las circunstancias concurrentes de la interesada.

3. Que don/doña beneficiario/a del uso de la vivienda asuma las obligaciones que de orden temporal y económico, que figuran en el artículo 6 del Reglamento de uso antes indicado, aceptando que las obligaciones económicas no suponen pago en concepto de renta debido al destino de uso social y servicio público de la vivienda, no generando en ningún supuesto la condición de arrendatario para el/la beneficiario/a.

En prueba de conformidad forman las partes el presente documento en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

El Ayuntamiento.—El/la beneficiario/a.

(II-4904)

Ayuntamiento de Lemoa

Modificación de la Ordenanza Fiscal número 10 reguladora de la tasa por utilización privativa y aprovechamiento especial del dominio público municipal.

Este Ayuntamiento, reunido en Sesión Plenaria Ordinaria de 4 de junio del año en curso, ha adoptado el acuerdo de aprobar provisionalmente la modificación de la «Ordenanza Fiscal número 10 Reguladora de la tasa por utilización privativa y aprovechamiento especial del dominio público Municipal».

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 49, 70-2.º y 111 de la Ley 7/1.985 de 2 de abril y artículo 16 de la Norma Foral 9/2.005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, el referido expediente se sometió a información pública, durante el plazo de 30 días contados a partir del siguiente a la publicación del correspondiente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», sin que se hayan presentado reclamaciones.

Dicha aprobación tiene en consecuencia carácter definitivo, publicándose a continuación el texto íntegro de la Ordenanza Fiscal, para su entrada en vigor y dando cumplimiento a lo exigido en el artículo 16.4 de la Norma Foral 9/2.005, de 16 de Diciembre, de Haciendas Locales y artículo 70.2 de la Ley 7/1.985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.